

MugMus Laborategia

ESKU HARRIAK

Oteizaren (h)aria



MEMORIA
DSS2016 *Mugalariak 2.0*

Donostian, 2015eko urrian

ESKU HARRIAK – MugMus Kultur Laborategia**MUGALARIAK 2.0 MEMORIA**

*Mugalariak programan parte hartu ondoren, konpainiak egin behar duten memoriarako **bide orri** bat da hau. Jarraian aurkezten ditugun atal batzuk beste partaideen balorazioa baita ere jasotzeko asmoarekin pentsatuta daude.*

**1. Proiektuaren laburpena. (50 hitz)**

ESKU HARRIAK emanaldia zuzeneko musika eta mugimendua (dantza) hitz, hots eta eskulturekin uztartuz *MugMus Kultur Laborategiak* burutu duen lehen sormen lana da. Oteizaren iruditerian oinarritutako lan honek Beñat Ralla Yustak Genevan Dalcroze Erritmika (musikaren irakaskuntzarako metodologia) ikasketen baitan burututako “Harritik herria” lan laburra du abiapuntu.

2. Parte hartzaileak

MugMus Kultur Laborategia (Musika eta Mugimendurako Kultur Elkarte) 2014ko ondarrean Beñat Rallaren ekimenez sortu zen musika eta mugimenduan oinarritutako sormen-lan eta eszenaratzeak gauzatu eta bi arlo hauetan ekintza pedagogikoak burutu asmoz.

Bertako kide dira: Beñat Ralla (zuzendari artistikoa, musikaria), Iñar Sastre (musikaria), Izaskun Lapaza (dantzaria), Nagore Somoza (dantzaria), Eneko Balerdi (dantzaria eta mugimendu aholkularia) eta Amets Arzallus (textugilea).

Bere sorreraz geroztik “Esku harriak” izenburupeko emanaldia prestatzeko laguntza bila hasi eta DSS2016ko Mugalariak 2.0 eta Baratza Aretoko babesa jaso zuen 2015 urteko hastapenean, eta horrenbestez bi egitasmo hauei esker garatu ahal izan du lana.

Aipatu lehen egitasmoaren baitan 2 egonaldi burutu dira, Zumaiako Alondigan abuztuan 10 egunez, eta Luhusoko Hameka karrika arteen fabrikako Harrixuri gelan iraila eta urrian 15 egunez. Bi egonaldiotan hainbat mediazio ekintza ere burutu dira prozesua hiritar eta ikusleekin partekatu asmoz.

3. Helburuak

Proiektuaren hasieran jarri zenituzten helburuak aipatu; lortu direnak eta bete ez direnak edota helburuen artean ez zeuden arren lortu direnak.

Arestian aipatu bezala, deialdi honen baitan helburu garbi batekin itsasoratu ginen: ESKU HARRIAK sormen lanari ekin, garatu eta amaitzea. Helburu hau erdietsia izan da eta horrenbestez oso kontent gaude. Horretarako gogor aritu gara lanean eta lan-saio luze eta trinkoak burutu ditugu.

Zorionez, aurreikusi gabeko sormen-egora eta hari-muturrak ere sorrarazi ditu bizi izan dugun prozesuak, eta horrek konpainia gisa abiatu dugun bidea sendotuko duela uste du. Batzuk aipatzearen, esango dugu burututako mediazio-ekintza baten ondorioz naturan gauzatuko litzatekeen emanaldi-mota berri bat osatua dugula “jada”, eta bestetik, antzokietarako pentsatua den sorturiko emanaldiko pasarte bat oinarri hartuta, kalerako ikuskizun bat sortzeko oinarri bat dugula.

Horrez gain, bizi eta landutako prozesuaren eraginez ezagutu diren askotariko eragileekin

harremandu izana (kultur.kudeatzaile, beste sortzaile, artista etab.) ere hasieran berariaz pentsatu gabeko "lorpen" bat izan da, eta honek kultur ekosisteman beste era batean kokatzeko ikuspuntu eta baldintzak eskaini(ko) dizkigu.

Azkenik, hasiera batean bigarren mailako helburu gisa pentsatu zen mediazio ekintzen baitan Dalcroze Erritmikaren bidez berau Euskal Herrian ezagutarazi eta ekintza pedagogikokoak burutzeko aukera baina ez da hala suertatu.

4. Proiektuan parte hartu duten eregileen izenak. (mediazio proposamenen deskribapen laburra; datak, partehartzailen kopurua, iraupena..).

EGONALDIAK:

Esan bezala, Mugalariak 2.0 deialdiaren baitan bi egonaldi burutu dira eta mediazio ekintzak egonaldiak iraun duen data berberetan egin dira.

Egonaldiak data hauetan egin dira:

2015eko abuztuaren 3tik 12ra Zumaiko Alondigan.

2015eko irailaren 23tik urriaren 7ra Luhusoko Hamekan

Egonaldi hauetan egunero aritu da lanean jai egunik hartu gabe. Zumaian 10:00tik 17:30ak arte eta Luhuson 9:30tik 18:30ak arte, egunaren arabera lanaldia luzatuz (bieran eguerdian bazkaltzeko geldialdiarekin).

Bi egonaldien artean tarte bat egon izana positiboa izan dela uste da, epe horretan ordurarte garaturiko lana arnasa hartzen utzi eta beronen inguruan gogoetak egin eta hurrengo egonaldira begira hobekuntza eta lan-ildo proposamen berriak egiteko aukera hobea eskaintzen duelakoan.

Normalean sormen prozesuak 3 hilabeteko epean egiten direla aintzat hartuta (guk Gasteizko 7 egunak aintzat hartuta 30 egunez aritu gara guztira, hilabete eta erdiz beraz), lana gogotik egin dugula ondorioztatzen dugu.

MEDIAZIO EKINTZAK:

Hainbat proposamenen hausnarketa burutu ondoren ondokoak burutu dira:

Zumaian:

-Beroketa saio irekia: herriko dantzarietara irekitako beroketa saio irekia proposatu zen. Ez zen inor bertaratu; uda izanik, astean zehar eta goizetik, eta hedapen mugatuak eraginda izan zela pentsatzen da.

-Herriko haur eta umeekin saio didaktikoa: 7-8 haur bertaratu ziren eta ordubete inguruko saio bat burutu zen "ariketa" edo proposamen ezberdinez osaturik, emanaldian erabiltzen ditugun material eszenografikoak erabili eta esperimintatuaraziz. Gurasoak ere bertan ikusle gisa geratu ziren.

-Garaturiko lanaren erakustaldia: azken egunean egonaldian sortutako bi atal nagusienak jendaurrean aurkeztu ziren era bilutzian, hau da, entsaiu arropa eta argiteriarik gabe. Taldea aurkeztu eta egitera gindoazenaren nondik norakoak azaldu ondotik guztira 25 bat minutuko material bat aurkeztu zen. Amaitutakoan, solasalditxo bat eduki zen bertaratu ziren 30-35 pertsonekin, nahiz eta jende gutxi "ausartu" zen elkar-trukea publikoki proposatzen.



MUGMUS LABORATEGIA OXFORD ARETOAN EGONALDI ARTISTIKOA - SAIO IREKIAK

8/8 larunbata 12:30 TAILERRA HAURREKIN 6-16 urte

- + Tailer parte-hartzailea
- + Lantzen ari diren ikuskizuneko osagiekin harreman zuzena izateko aukera

8/10 astelehena 10:00 BEROKETA SAIOA 16+ urte

- + Lan-saioari ekin aurreko beroketa saioan parte-hartzeko aukera
- + 45 minutu inguru

8/12 asteazkena 16:30 LANAREN ATALAK IKUSI ETA GALDETU

- + Prestatzen diharduten emanaldiaren atal batzuk ikusi, azalpenak jaso eta galderak egiteko aukera

DSS2016ko Mugalariak deialdiaren baitan **MugMus Laborategia** Musika eta Mugimendurako Konpainiako kideak egunotan Alondegiaiko Oxford aretoan egonaldi artistikoa egiten ari dira beren lehen sormen-lana abiarazi eta garatu asmoz.

Honen kaltetara aukera izango dute heritarrek egiten ari diren lana zuzenean ezagutzeko.

Ekintza bakoitzean 20 bat lagunek parte hartu ahal izango dute gehienez ere.

Bestalde aipagarria zaigu aurreikusi gabeko mediazio ekintza gisa, Amets sormen prozesura batu zen egunean Maddalen ahizpa (bertsolaria hau ere) etorri eta burutzen ari ginena bertatik bertara ezagutu zuen unea. Izan ere, irailerako asmoak jakinarazi eta partekatuz gure asmoei zentzu handiago eman zitzaien.



Luhuson:

-Emanaldi gisako erakustaldia mendian berariaz gehitutako osagaiekin (bertsolariak, cromletxa etab.): irailaren 27an, igandez, Itsasutik gora kokatzen den Artzamendi lepoan dagoen harrespila aitzaki hartuta erakustaldi ibiltaria gauzatu zen. Bertan, antzokietan emango den ikusgarriaren atal bat erakustearekin batera, berariaz egun eta testuinguru horretarako pentsatutako emanaldi bat prestatu zen, horretarako elementu eta gonbidatu bereziekin kontatuz: Zumaia eta Lapurdiko bertsolarien parte hartzea (Maddalen Arzallus, Maialen Velarde eta Aitor Servier), egiazko harrespila, naturgunea... Honela bertsolariak taldekide bihurturik harrizko-dantzari aritu ziren, baita harri eta dantzariekin puntutan kantuan aritu, Oteizak zioen moduan paisaietik edanez bertsoak bota etab.

Ikusgarri honek ordubete inguru iraun eta 40 bat lagun ingurarazi zituen.



27.09.2015(Bideak eta ikusgarria / Trajets et spectacle) **9:30-12:00**

HITZORDUA SANOKI GELAN,
ITSASUN, MENDIRA JOAITEKO
(AUTO PARTEKATZEA)
RENDEZ-VOUS SALLE SANOKI À
ITXASSOU POUR UN DÉPART EN
MONTAGNE (CO-VOITURAGE)



45 MIN
IKUSGARRIA
SPECTACLE



DENENDAKO
TOUT PUBLIC



EUSKARA



URRIK
GRATUIT

HARRIEKIN BERTSOTAN, HARRIAK DANTZAN... OTEIZA ARAKATUZ Klerazko herria: Oteizaren (h)aria

MUGMUS LABORATEGIA / ZUMAIA ETA IPARRALDEKO BERTSO ESKOLAK
(DONOSTIA)

Aurkezpen honetan, dantzariak, bertsulariak eta musikariak (perkusio eta pianoa) parte hartuko dute.

MugMus Laborategiak (Musika eta Mugimendurako Kultur konpainiak) bide artistiko eta pedagogikoa urratzeari ekin berri dio 2014ko abenduaz geroztik Beñat Ralla Yustaren ekimenez. Bere helburua arte-bizien eremuan musika eta mugimenduaren uztarketa landuak egin eta eszenaratzea da, horretarako beste arte diziplinekin elkarlanean ere arituz.

MugMus Laborategia, Hamekan egonaldian sortze-lanetan ariko den "Klerazko herria: Oteizaren (h)aria" ikusgarriaren sorkuntza elikatu eta publikoarekin elkar-banatzeko burutuko da aurkezpen hau. "Jorge Oteiza artistaren iruditeria jorratuz egiazko cromlech (harrespila) batean bere hainbat elementuk bat egingo dute hitzaren, dantzaren, eskulturaren, musikaren... eskutik. Era original honetan, natura batean bat-bateko entsegu-saioan aurreko osagaiekin uztartuz bertsoaren ekarpenak etorkizuneko ikusgarria jantzi dezan dugu helburu." Bukaeran, artistekin topaketa bat antolatua izanen da.

Kaxu! Ez ahanzi ur botailak ekartzea eta mendiari egokituak diren jantziak ezartzea.

*Jende kopuru mugatua, izena eman!
Jauge limitée, pensez à réserver!*

INFORMAZIO ETA IZEN EMAITEENDAKO
INFORMATIONS ET RESERVATIONS
05 59 55 58 43
HAMEKA@CC-ERROBI.FR

Lors de cette représentation participeront des danseurs, bertsulari et musiciens (percussion et piano).

Depuis décembre 2014, à l'initiative de Beñat Ralla Yusta, MugMus Laborategia (Musika eta Mugimendurako Kultur konpainia - Association Culturelle pour la Musique et le Mouvement) s'engage dans les voies artistiques et pédagogiques. L'objectif est de travailler à l'association et à la mise en scène de la musique et du mouvement dans le domaine du spectacle vivant. Il s'agit aussi de travailler avec d'autres disciplines.

MugMus Laborategia propose cette présentation dans le cadre de la création du spectacle "Klerazko herria: Oteizaren (h)aria", qui sera en résidence à Hameka. "À travers l'imagerie de l'artiste Jorge Oteiza, il s'agira de réunir plusieurs éléments tels que les textes, la danse, la sculpture, la musique... autour d'un authentique cromlech. De manière originale, en pleine nature et lors d'une séance de répétition improvisée, nous souhaitons aussi enrichir le futur spectacle en y ajoutant des contributions du bertsu." À l'issue, une rencontre avec les artistes sera organisée.

Attention! N'oubliez pas d'amener de l'eau et de porter des vêtements adaptés en montagne.



Artzamendiko lepoko harrespilako saio honen hastapeneko prestaketa lanetan aipagarria Aranzadi Zientzia Elkarteko kideekin izandako elkarlana (harrespilen inguruko azalpenak, kokapenak...).

5. Prozesuaren kontaketa faseka:

- *Proiekturaen (obraren) jatorria/abiapuntua:*

ESKU HARRIAK lanaren abiapuntua Beñat Rallak Genevan burututako Dalcroze Erritmika musikaren irakaskuntzarako metodologia ikasketen baitan egindako 10 minutuko lanean du jatorria (De la pierre le peuple: le cromlech en mouvement [Harritik herria: cromlech-a mugimenduan], 2014).

- *Aurrekariak (lehenagoko antzeko esperientziak, sentsazioak, asmoak; beste zentru batzutan egonaldian egon zarete leheneago? Mediazio proposamenak garatu dituzue? Ze espero zenuten..?)*

Sormen-lan honi dagokionez aurretik Gasteizko Baratza aretoan astebeteko egonaldi labur bat burutu zen. Egonaldi hark Konpainiako 3 kide lehen aldiz hartuemanen jarri eta hari mutur batzuk iker zitzaten baliatu zen.

Mugalariak 2.0 deialdian eginiko egonaldiek beste dimentsio bat eduki dute. Talde guztia elkartu zen abuztuan eta norabide zehatzagoetan lan egin da. Horretaz gain, baliabide eta azpiegitura aldetik hornituago egonik, horrek sortu asmo zen ikuskizuna garatzeko baldintza errealetan aritzea ahalbidetu du: espazioa, argiak, pianoa, elementu eszenografikoak etab.

Arestian aipatu diren mediazio-proposamenek sormen prozesua herritarekin partekatzea ahalbidetzeaz gain, denbora-mugarri eta sormen iturri ere izan dira.

6. Jarraipena. Proposamenik ba al dago hasitako elkarlana jarraitzeko?

Bai noski. Batetik talde-gisa sormen-lana amaituta orain jendarteratze prozesuan murgilduko gara, estreinaldia burutzeko data eta antzokiaren bila, baita egun honetatik aurrerako gainerako emanaldietarako ere.

Sormenaren ikuspegitik, arestian aipatu bezala bi bide berri urratzeko aukera ikusten da. Batetik, Artzamendin bezala harrespila bat duen naturgune batean egingo litzatekeen emanaldia doitu eta eskaintzeko moduan jartzea, eta bestetik antzokirako pentsatua den emanaldiko atal batean oinarrituz (Frontoia) kale-ikuskizun bat sortzea.

Azkenik, eta taldearen sortze momentuan jaso bezala, musika eta mugimenduaren inguruko ekintza pedagogikoen baitan, 2016ko uztailean Dalcroze Erritmikako udako ikastaro bat antolatu nahi da, Genevako *Institut Jaques-Dalcroze*-ko irakasleak gonbidatu eta musika eta mugimendua uztartzen dituen musikaren irakaskuntza-ikaskuntzarako metodologia hau Euskal Herrian bere bidea urratzen hasi dadin.

- 6. **Balorazioa.(*)** Mugalariak egitasmoak/programak, elkarlana eta harreman berriak pizten dituzten proiektuak bultzatzen ditu. Hau horrela izanik, partaide bezala, zuen iritzia jasotzea gustatuko litzazuke. Ondorengo galderak, beste eragileekin egindako lanaren inguruan hausnarketa bat proposatzen dute.

Jarraian taldekide desberdinek erantzunak jasotzen dira, gidioez gidioi:

- Ondorioak, ikasketak, zertarako balio izan dizue egonaldiak?
 - Proiektuak deskribatzen zuen ikuskizuna gauzatzeko azpiegitura eskaini digu egonaldiak, teknikoki baliabide egokiak eskuragarri izatean, aurrez egindako lana integralki garatzea ahalbidetuz.
 - Proiektuko partaide guztiak (sei pertsona) aldi berean eta leku berean lan egiteko aukera egon da. Honek sorkuntza prozesuko erabakiak taldean eztabaidatzea eta bakoitzaren beharrak gainontzekoei komunikatzea beharrezkoa egin du, nere kasuan ikasketa bat bihurtuz.
 - Sortze prozesu kolektiboaren urratsak ulertzen lagundu dit egonaldiak. Ideiak zehazterakoan ikuspegi ezberdinen dialektikari leku egin zaion eremua sortu da gure artean. Besteen sortze eta lantze prozesua gertutik ezagutu ahal izan dut, neronek zuzenki edo zeharka gauza aunitz ikasiz.
 - Bizitutako egonaldi artistikoak, mahai gainean geneukan proiektua ikuskizun batean gauzatzeko eta taldeko lana aurrera eramateko balio izan zaigu.
- Non garatu ohi dituzue normalean sorkuntza prozesuak?
 - Antzokietan edota dantza aretoetan.
 - Dantza aretoetan eta nere etxean
 - Beste konpainia batekin lan egiten dudanean, argiztatzailea izanik ere, nire ohiko lanak, Arriagan antzokian, sortarazten dizkigun arazoei sorkuntza bidezko erantzunak eman behar dizkiogu sarri.
 - Piano bat duten eremu itxietan eta bakardadean burutzen ditut nire sorkuntzak.
 - Antzokietan.
- Zer suposatu du (positiboan ala negatiboan,) Kultur Etxe edo antzoki honetan lan egiteak? Zergatik?
 - Zeharka baina ezinbestekoa den erosotasun pertsonala eskaini digu kultur etxeak, otorduak eta atsedeen hartzeko espazio lasaiak eskainiz.
 - Batez ere antzokiaren kasuan, emanaldi egoera une oro presente izatea eragin du.
 - Positiboa:
 - Erosotasuna, lekuak laguntzen du kontzentrazioa mantentzen, lanean ari garen horretan buru eta belarri egotera.
 - Baliabide teknikoak oso egokiak dira.
 - Sektoreko beste konpainia eta organismoekin kontaktu zuzena izateak ere aukera ona da.
 - Taldearen arteko harremanak (elkarbizitza, "konbibentzia") hobetzen laguntzen du espazioak.
 - Espazio erreal batean kokatu ahal izatea aretoan egiten den guztiak zuzenki baten g gisako energia sentiaraziz.
 - Proiektu artistikoa aurrera eramateko beharrezkoak diren azpiegituraz disfrutatzea, bertan bazkaltzeko aukera izateaz gain.
- Nolakoa izan da ekipamenduko arduradunarekin harremana?
 - Ona.
 - Ekipamenduko arduradunak egonaldiko egun gehienetan inguruan izan ditugu eta beraien aurpegiak ikusteak (bazkaltzean etab.) komunikazioa erraztu du.
 - Ona.
 - Ona, ez da ezer falta izan.

- Erraza eta ona.
- Parte-hartu al duzue aurretik bestelako mediazio jardueretan?
 - Bai. Ikastaro trinkoak, saio irekiak, hitzaldiak, etab.
 - Bai. Ikastaro trinkoak, saio irekiak, hitzaldiak, etab.
 - Bai
 - Ez
 - Bai. Saio irekietan, eta mediazio ekintzetan.
- Zer ikasi/irabazi duzue mediazio proiektuaren bidez?
 - Ikuskizunaren muineko edukien kudeaketan: aukeraketa, konposaketa, erabaki hartze, etab. Antolatutako mediazio ekintzaren mediazioaren garrantziaz ohartzeko ere balio izan digu.
 - Mediazio ekintzak, egoitza burutzen den lekuko jendearekin denbora pausatu bat igarotzeko aukera izan da. Egoitzan zehar lanordu luzeak izan direnez, jendearekin elkarriketa lasaiak izateko energia eta denbora gutxi izan dugu eta mediazio ekintzen inguruan denbora geldoago hori azaldu dela iruditu zait.
 - Instituzioen eta taldeen arteko harreman eta loturak sortzea, net working deritzona.
 - Elkar errespetatu, ulertu eta norberaren eremuko baldintzak hobeto ulertzea.
 - Ezinbestekoak direla kultur arkoan publikoa berria sortzeko eta orokorrean sormena partekatzeko.
- Eraldaketaren bat egon da zuen praktketan? Prozesu hauek zuen praktketan txertatzeko plana duzue? (programa berri bat, beste eragileekin kolaborazio iraunkorra...)
 - Ekintza hauen aldekoak izan gara eta gure ikuspegia berretsi da. Mediazio teknikoez gain, ikastaro, hitzaldi, emanaldi, etab., mediazio pertsonal-sozialen eragin positiboaz hausnartu dugu, alegia, herriko jatetxe ezberdinetan bazkaltzean, zein goizeko kafe/infusioa inguruko tabernatan hartzean, bertako gizartean praktika profesional hau ikusgarri egiteaz (eszenikoa, garaikidea, artistikoa,...).
 - Ekintza hauen aldekoak izan gara eta gure ikuspegia berretsi da. Leku berri batetarako materiala berrantolatzea ariketa interesgarria iruditu zait.
 - Egonaldian argiztapen-lan osoa gauzatu arren, teknikoki, metodologikoki eta lan egiteko eran aurrera pausurik ez dut egin, praktikan jarri izan dut banekiena. Halere, hasieratik argi-diseinua egitearen aukera beti balioztatzen dut nire lanean horrek ematen didan plazerragatik, sorkuntza prozesu guztian parte-hartzeagatik.
 - Momentuz ez, baina gustatuko litzaidake.
- Zeintzuk dira dituzun baliabideak eta beharrak metodologia honekin jarraitzeko.
 - Baliabide politikoak behar ditugu: kultura plan eta estrategia arduratsu zein dinamikoak. Ondoren, baliabide ekonomiko bilakatuko direnak: profesionalen, espazioen eta denboren kudeaketa arduratsu, baina egokiez baliatu ahal izateko. Ditugun baliabideak teknikoak dira: gure konpetentziak musika dantza eta ikuskizunen Jakintza eta prestakuntza teknikoan ditugu garatuak.
 - Kultura alorrean lan egiten duten erakunde publiko eta pribatuak dagoeneko eginik dauden lanei eta aktibo dauden eragileei bultzada bat ematea beharrezkoa ikusten dut.
 - Horrelako proiektuen sursperketa egoten jarraitzea.

- Momentuz ez dut beharrik.

7. Glosarioa.(*)

Esperientziarekin lotzen dituzun 3 hitz aipatu.

- Paxkal, Gaztaña ta Porrusalda. edo (Ikusgarria, Zutarria -zut(ik egong)arria- eta Errizoma
- Intentsiboa, talde lana, Iparraldea
- Konpromisoa. Kontzentrazioa. Profesionaltasuna.
- Elkartrukaketa, ulermena eta sorkuntza
- Sormena; partekatzea; taldeko lana

8. Iruditegiak. (*)

Esperientziarekin lotzen dituzun 3 irudi. (Prozesuan hartutako irudiak, sinbolikoak, metaforikoak ...)

- Errizoma, ilbetea, Leo
- 1.-Bertsolari artean mendian mugitu.
- Frutarbola, sutondoa, Harri Xuri.
- Iluna, pianoa eta irriparreak
- Natura, konstantzia eta zorientasuna.

(*) *beste partaideekin konpartituko ditugun atalak.*

IKUSENTZUNEZKOAK : www.vimeo.com/mugmuslaborategia

ARGAZKI ERANSKINA







